

2 HE

ENTZUMENA

■ 3. ariketa

Consumer aldizkariak egindako ikerketa interneten aurkitu ahal diren dietei buruzkoa.

- Entzuten hasi aurretik 2 min. dituzu galderak irakurtzeko.
- Lehenengo entzunaldia bukatu eta gutxira, bigarren aldiz entzungo duzu.
- Bigarren aldiz entzun ondoren, 1 min. duzu ariketa amaitzeko.

Nahi duzunean has zaitezke erantzuten.

1. **Zergatik esaten du esatariak Interneteko eskaintzekin tentuz ibili behar dela?**
 - a) Egia bihurtzen ez diren bidaia kontratatze arriskua dagoelako.
 - b) Erosketak egiteko aukera eskaintzen digulako.
 - c) Argaltzeko dietak eskaintzen dizkigulako.
2. **Zer ondorioztatu dute Consumer Eroski aldizkarikoe egin berri duten ikerketa batean?**
 - a) Interneten egindako erosketak ez direla fidagarriak.
 - b) Internetetik eskaintzen zaizkigun dietekin oso argi jokatu behar dugula.
 - c) Internetekin, oro har, oso tentuz jokatu behar dugula.
3. **Zer ezaugarri izan ditu Consumer Eroski aldizkarikoe egindako lanak?**
 - a) Perfil desberdinetako pertsonentzako dietak eskatu dituztela eta aldizkariko adituekin kontrastatu dituztela ondoren.
 - b) Berariaz, ezaugarri bereko pertsonentzako dietak eskatu dituztela.
 - c) Pertsona desberdinek ezaugarri bereko pertsonentzako dietak eskatu dituztela.
4. **Zer irizpide izan dituzte dietak baloratzeko?**
 - a) Osasuna eta gomendioen ezaugarriak.
 - b) Etxeko dietisten iritzia baino ez.
 - c) Emaizten ikuspuntua, benetan argaltzeko balio izan duten.
5. **Zein izan da aldizkarikoe dietei antzeman dieten iruzurrik nabarmenena?**
 - a) Asmatutakoak izan direla.
 - b) Eskatutako pertsonentzako sortutako dietak ez direla izan.
 - c) Dietistek eskatutakoak zehatz-mehatz jarraitu dituztela.
6. **Zer da normopisua?**
 - a) Pertsonaren ezaugarri fisikoak aintzat ez hartzea.
 - b) Pertsonak alegiaren bat duen aztertuta, neurrira egindako dieta.
 - c) Gorputz-ezaugarriak, sexua eta adina aintzat hartuta, pertsonari dagokion pisua.
7. **Zergatik ez dute gaintitu Consumer aldizkarikoen azterketa?**
 - a) Dietak pertsonalizatuegiak direlako.
 - b) Gabezia handiak dituztelako.
 - c) Galdetegirik ez dutelako egiten.
8. **Zeri eman behar zaio lehentasuna dietetan?**
 - a) Pertsonaren gustuei.
 - b) Osasunari.
 - c) Pertsonaren gustuei eta osasunari.
9. **Beste zer jotzen dute negatibotzat?**
 - a) Zientziak frogatu gabeko hainbat osagarri eskaintzea.
 - b) Dieta zenbat denboran egin behar den garbi adieraztea.
 - c) Zenbat kilo galdu behar diren adieraztea.

GOGORATU: ERANTZUNAK ERANTZUN-ORRIAN